

Durangoko hilerriko hobi komunak 85 urte geroago




Durangoko historiako pasarterik gordinenetariko bat 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketa izan zen. Lekukoen esanetan, hildako ugari hilerriira gurdietan eraman zituzten. Hobi komunean lurperaturiko 84 pertsonen zerrendan identifikazio lana egiten aritu da eta haien familiakoekin hartu-emanean jarri da Jimi Jiménez. Aranzadi Zientzia Elkartea prospekzioak egiten aritu da asteen. • 2-3



Tanttakaren berria

Antzerkia • 'Semea pixka bat motelago dabil soilik' obra ikus-tekotekoa aukera bikoitza egongo da asteburuan. • 19



Nerabeak mendira erakartzeko irteerak antolatu ditu Alpinok

Mendia • Ekintza-sorta "erakargarri" batez, Alpino-Tabira mendiko klubak 12-17 adin tarteko mendizale kopurua handitu gura du. • 21

"Urteotan, udalak eskaini ez duen espazio bat izan da Sorginola, proiektu askoren aterpea"

Durango • Eguaztenean, dozenaka lagun batu ziren Sorginola eraistearen aurka protesta egiteko. Inguruetako lurak erosi eta gero, Eusko Jaurlaritzak maiatza orduko Durangoko gaztetxea eraisteko asmoa duela iragarri zuen asanbladak. Erabakiagaz desadostasuna agertzeaz gainera, Sorginolari alternatiba bat emateko eskatu dute, eta elkarrizketarako borondatea dutela adierazi dute. "Asanbladetan eta ekimenetan parte hartzea dei egiten diegu Durangoko gazteei. Momentu erabakigarrian gaude gazte mugimendua berpizteko. Argi geratu da Durangoko gaztetxea behar duela", esan dute. Sorginolako asanbladako kide diren Olatz Gorriategigaz, Amaia Arbeogaz eta Eneko Munitxagaz batu da ANBOTO. • 4





**Jimi Jiménez
Jiménez**

Durango 1936
kultur elkarte

DURANGO | 1965

“Familientzat garrantzitsua da jakitea euren senideek zein tratu jaso zuten lurperatzerakoan”

Durango 1936 kultur elkarteko kideak Durangoko hilerriko prospekzioetan parte hartu du

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango 1936 kultur elkarteko kidea da Jimi Jimenez. Urteak daramatza memoria historikoaren gaia lantzen. Durangoko hilerriko prospekzioa berezia izan da berarentzat. Proiektu honen barruan, hilerrian hobiratuta dauden pertsonen zerrendatik abiatuta, ikerketa bat egin du pertsona horiek identifikatzeko eta senitartekoekin hartu-emanetan jartzeko. Prospekzioan ere parte hartu du.

Zelan planteatu duzue azterketa?

Gogora taldeak memoria historikoaren inguruko ikerketak egiteko deialdia atera zuen. Bonbardaketaren hobi komunaren gaia lantzeko ideia sortu zen. Durango 1936 eta Gerediaga elkarten ekimenez hasi zen ikerketa, udalaren babesagaz. Lehenengo fasea dokumentazioarena eta identifikazioarena izan da. Atal hori ezin da guztiz amaitutzat eman. Hasieran, 25 familia identifi-

katu genituen, eta fase hori ofizialki amaitutzat eman eta gero, bost familia gehiago agertu dira. Beraz, atea zabalik utzi behar da.

Luis Altunaren testigantza arabera, 1943an bere aitaren gorpua desobiratu zuten handik

Ikerketa hau egiteko, hobiraturikoen zerrenda batean oinarritu zarete. Baina zerrenda hori galderaz inguraturuta dago.

Jon Irazabalen eskuetara heldu zen mekanografiaturiko zerrenda bat da. Irazabalek 2001ean kaleraturiko liburu batean agertzen da. Berak beti pentsatu izan du Durangoko hilerriko liburutik falta diren orriei zegokien zerrenda zela. Baina hilerriko liburuan ez da hori bakarrik

falta. 1936ko azarotik 1937ko maiatzera arteko orriak falta dira. 16 orri kendu zituzten. Orri horien artean, zerrenda hau dago. 127 ziren bonbardaketaren eraginez hilerrian enterraturiko pertsonak, datu ofizialen arabera. Horietatik 84 hobi komun batean edo batean baino gehiagotan lurperatu zituzten. Bestalde, zerrenda hori 1937ko Eusko Jaurlaritzak Euskadin egindako bonbardaketen txosten batean kaleratu zuen. Hilerriko zerrenda horri gehitu zizkieten Basurtura eta beste ospitale batzuetara ebakuatu ondoren hil zirenak. Irazabalen zerrenda eta Eusko Jaurlaritzarena berdinak dira.

Hobi komun bat ala bi izan daitezke? Zerrendak bi aipatzen ditu. Pertsona bakoitzak zenbaki bat dauka. Zenbaki horri eskerrak, 40ko hamarkadan exhumazio bi egin zituzten.

Beraz, hobi komun horietatik gorpu bi atera zituzten?

Luis Altunaren testigantza arabera, 1943an bere aitaren gorpua desobiratu zuten handik. Beste pertsona bat ere desobiratu zuten 40ko hamarkadan, Arturo Gomez. Haren alargunari senarraren gorpuzkiak exhumatzera zihoazela jakinarazi zioten, presente egon zedin. Alargunak zalantza agertu zien, hobi komunean egotera ea zelan jakingo zuen senarraren gorpua zen ala ez. Senarraren objektu pertsonalak erakutsi zizkieten, eta ezagutu egin zituen. Gorpuzki horiek familiaren panteoirra eraman zituzten. Ez dakigu beste gorpurik desobiratu zuten.

Kopuruari dagokionez, ez dut uste estatu espainiar guztian gertaera bakarraren eraginez sorturiko hobi handiagorik egongo denik

Zelan planteatu duzue ikerketa?

Hobi komunetan lurperaturiko biktimei izen-abizenak ipintzea da helburua. 84 pertsona hauengan zentratu gara. Kasu batzuetan, erregistroak ez du lurperaturiko pertsonaren daturik ematen. Beste kasu batzuetan, gudariak erabiltzen zituzten identifikazio zenbakiak agertzen dira. Zenbaki horietatik hasita, hainbat izen aurkitzea lortu dugu. Beste batzuk gatzixena dute, 'Anselma La sillera', 'Pepe Curro'. Erregistro zibil eta parrokialetatik

hasita lanketa handia egin da pertsona horiek identifikatzeko.

Zein beste zailtasun aurkitu duzue ikerketan zehar?

Durangotik kanpoko pertsona asko dago zerrendan eta horixe izan da zailtasunik handienetariko bat. Kontuan izan behar da Durangok gerratik ihesi zetorren errefuxiatu asko jaso zuela sasoi hartan. Gipuzkoatik zetozen asko. Otxandion eta Elgetan zegoen frontea. Bestalde, Durango ferrokarrilaren helmuga zen. Durangotik aurrera, linea hori etenda zegoen. Beraz, Durango zentro zibil eta militarra zen. Horri gehitu behar zaio inguruko herrietako baserritarrak merkatura etorri zirela euren jeneroa saltzera. Kontuan hartzekoa da egun horretan bonbardaketa bat baino gehiago egon zela. Abioiak arratsaldean ere etorri ziren.

Lekukoek diotenez, arratsaldean hegazkinetatik metrailatu zituzten pertsonak. Egun kaotikoa izan zen.

Bonbardaketaren lekuko askok kontatzen dute hildakoak hilerriara karroan igotzen ikusi zituztela. Arratsaldean, jende asko hilerriara igo zen hildakoak identifikatzera, eta bidean abiadoreek pertsona horiek metrailatu zituzten.

Familietara heltzeko, zein laguntza izan duzue?

Horretarako, sare bat sortu dugu memoria historikoa lantzen duten lekuan lekuko elkarteekin. Urruneko lekuetan, Karrantzan eta

Zallan, esate baterako, gerra eta memoria landu dutenekin bat egin dugu. Sare horrek kontaktuak eman dizkigu eta horrek ikerketan lagundu du. Horrela, familiek zertan ari garen jakin ahal izan dute.

Bonbardaketaren atal hau inork aztertu gura izan ez duen zerbait da. Jakintzat eman da, baina 85 urte geroago jendea non dagoen galdetzen gabilza

Zein izan da familien erreakzioa? Familia batzuek bazekiten euren senitartekoa hobi komunean egon zitekeela?

Batzuek bazekiten, senitartekoa- ren izena Jon Irazabalen zerrendan irakurrita; batez ere, izen-abizenekin zerrendan zeuden pertsona batzuen kasua da. Identifikazio zenbakia zuten gudarien kasuan, batzuk frontean hil zirela uste zuten senitartekoek. Otxandion eta inguruetan desagertutzat eman zituzten. Baina 85 urte daramatzate hilerrian lurperatuta.

Aranzadik urteak daramatza gai hau lantzen. Zergaitik heldu da hain berandu Durangoko azterketa hau?

Aranzadik eta Eusko Jaurlaritzak bulego bat zabaldu zuten jendearen eskaerak jasotzeko. Baina Aranzadik zuzenean ezin zuen azterketarik egin. Eskaeraren bat behar zuten. Bestalde, bonbardaketaren atal hau inork aztertu gura izan ez duen zerbait da. Jakintzat eman da, baina 85 urte geroago jendea non dagoen galdetzen gabilza.

Durangoko hilerrikoa Euskal Herriko hobi komunik handiena izango litzateke?

Bai, kopuruari dagokionez ez dut uste estatu espainiar guztian gertaera bakarraren eraginez sorturiko hobi handiagorik egongo denik. Horregaitik, garrantzitsua da

prospekzioa egitea, ikusteko hobi komun bat ala zanga bat den, eta bertan gorpuak duinki lurperatu zituzten ala ez. Kontuan izan hilerrietan gorpuak duintasunez hobiratzen direla. Hobi komunetara gorpuak bota egin daitezke. Baina, kasu honetan, herriko jendea izan zen pertsona hauek hobiratu zitue-na. Inguruko jendea zen. Beraz, ez dut uste gorpuak botatzen diren hobi komun bat denik. Modu jakin batean kokatuta egongo direla uste dut. Ñabardura hori garrantzitsua da. Ez bakarrik lan egiterako orduan. Familientzat ere garrantzitsua da jakitea euren senideek zein tratu jaso zuten. Bonbardaketa baten dramatismoaren barruan, hildakoak gutxiestearen gehigarri hori ez dagoela uste dut.

Lurperatu zituzten pertsonen zerrenda eguneratua: 'gerediaga.eus'

DURANGO / IURRETA

Concepción Andrade Loma (zibila) - Familia aurkituta

Jose Aulestiarte Icaran (zibila)

Maria Cruz Arroyo Majadas (zibila)

Teodoro Domínguez Macías "Tululú" (zibila) - Familia aurkituta

Carmen Ereño Canales - Familia aurkituta

Marcelina Ferandez Pérez (zibila) - Familia aurkituta

Carmen Fuentes Alonso (zibila)

Arturo Gómez Fernandez (desobiratua)

Jose Ignacio Irazabal Madariaga "Curro" (zibila) - Familia aurkituta

Sebastiana Larrinaga Iruri (Mardones leku batzuetan) (zibila) - Familia aurkituta

Dulce María Lezámiz Pérez (zibila)

Caridad Lezámiz Pérez (zibila)

Regino Mateo Reposo (zibila) - Familia aurkituta



Bonbardaketaren osteko irudia Durangoko hilerrian. Gerediaga Elkartea..

Daniel Olea Garaita (zibila) - Familia aurkituta

Balasi Olea Garaita (zibila) - Familia aurkituta

Nicasio Pérez Argoitia (zibila)

Luis Tellitu Belausteguigoitia (gudaria) - Familia aurkituta

Nicolás Uriarte Unamuno (gudaria) - Familia aurkituta

Mª Teresa Uriarte Urriolabeitia (zibila) - Familia aurkituta

Victoriana Zabaleta Ormaechea (zibila) - Familia aurkituta

Carmen Zaldivar Goicoechea (zibila)

Concepción Zarandona Orbea (zibila) - Familia aurkituta

Anselma Barrueta Urcelay "la sillera"

Luis Altuna Aberasturi (zibila - desobiratua) - Familia aurkituta

Victoria Urriolabeitia Uribe (zibila) - Familia aurkituta

ABADIÑO

Florentina Lariz-Zubi-Errementeria Leaniz-Beascoa (zibila) - Familia aurkituta

MALLABIA

Vicente Larrinaga Güenechea (zibila) - Familia aurkituta

Martín de Astarloa y Zubia (gudaria) - Familia aurkituta

ELORRIO

Pablo Azcarragaurizar Uribarren (gudaria) - Familia aurkituta

Marcos Cengotitabengoa Mendicoechea (gudaria) - Familia aurkituta

JATORRI EZEZAGUNA

Florencio Bilbao Guerediaga (gudaria)

BILBO

Pablo Areitio Cuesta

Juan Lezama Larrea (gudaria)

Avelino Rico Garcia (gudaria)

Ricardo Crespo Ayerra (gudaria)

- Familia aurkituta

ERANDIO

Eduardo Blanco Ramos (gudaria) - Familia aurkituta

BARAKALDO

Ricardo Redondo Mariscal (gudaria) - Familia aurkituta

KARRANTZA

Vicente Santisteban Abascal (gudaria)

ZALLA

Pablo Rollosó Álvarez (gudaria) - Familia aurkituta

EIBAR

Feliciano Errasti Elgoibar (zibila) - Familia aurkituta

Vitoriano Lizarriturri Barrutia (zibila) - Familia aurkituta

ELGOIBAR

Ángel Suárez Echevarria (gudaria) - Familia aurkituta

ARETXABALETA

Concepción Gago Raposo (zibila) - Familia aurkituta

DONOSTIA

Marcelino García Romeral (zibila)

Ignacio Lombide Alberdi (gudaria) - Familia aurkituta


José Antonio Luengas Lapeña (erlijiosoa)

Marcelino Merino Rasines (gudaria) - Familia aurkituta

Ángel Santillana Madrid (gudaria) - Familia aurkituta

Eugenio Vergara Gutiérrez

Mauricio Ayestaran Elustondo (gudaria)



Durangoko bonbardaketaren aire irudia. GEREDIAGA ELKARTEA



GARAIO ELIZATEKO UDALA
San Migel auzoa, 20· 48200 Garai
udala@garai-udala.eus
Tel. 946816393

GARAIO UDALAK
LURSAIL BAT JARRI DU SALGAI MILIKUA
EREMUAN

Garaiko Udalak bi lursail ditu Milikua eremuan eta horietako bat salgai jartzea erabaki du. Familia bat bizitzeko aukera ematea da salmentaren arrazoa. Izan ere, Garain ez dago eraikigarriak diren lursailen aukera handirik.

Ezaugarriak:

- Lursailak 3.552,05 metro koadroko azalera dauka.
- Lursailak, 437 metro koadroko gehieneko eraikigarritasuna dauka.
- Lursailaren gutxieneko prezioa 82.387,05 eurokoa da. Prezioari aplikatu beharreko zerga BEZ-aren %21a da.
- Interesdunek otsailaren 28ko 15:00ak arte egin ahaliko dituzte eskaintzak. Horretarako, bitarteko elektronikoa baliatu behar izango dituzte.

Edozein gisaz, xehetasunak eskatu, zalantzak argitu edo argibideren bat behar izanez gero, interesdunek Garaiko Udalera jo dezakete.

Garain, 2022ko urtarilaren 17an
Alkatea

“Urteotan, udalak eskaini ez duen espazio bat izan da Sorginola, proiektu askoren aterpe”

Sorginola eraisteko erabakiaren aurrean, Sorginolako kideek elkarretaratzea egin dute asteon; espazio alternatibo bat eskatu dute eta Durangok gaztetxea "beharrezkoa" duela azpimarratu dute; "jokaldi espekulatiboa" ere salatu dute

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Sorginola gaztetxearen eraikina maiatz aurretik eraitsiko dutela iragarri zuen asanbladak joan den astean; eguaztenean, elkarretaratzea egin zuten Landako Gunean, Jaurilaritzaren erabakiaren aurka eta alternatiba bat eskatzeko. Gazteen asanbladak adierazi du "Elkarriketarako prest daudela", eta datozen asteetarako hainbat ekimen antolatzen dabilta, baita ere. Eguaztenean, dozenaka lagun batu ziren Landako Gunearen inguruetan egindako elkarretaratzean. Bertan, desalojoaren eta eraistearen erabakiak eragindako erreakzio soka baloratu zuten: "Argi geratu da Durangok gaztetxea behar duela. Durangoko gazteok nekaezinak gara eta lanean jarraitzeko asmoa dugu. Dei egiten diegu Durangoko gazteei ekimenetan eta asanbladetan parte hartzeko. Momentu erabakigarrian gaude eta gazte mugimendua berpizteko garaia da", gaineratu zuten. Olatz Gorritxategi, Amaia Arbeo eta Eneko Munitxa gazteak Asanbladako kideak dira.

Alternatiba bat eskatu duzue Sorginolaren proiekturako, eta elkarriketarako prest zaudetela esan duzue. Jaso duzue erantzunik?



Udaletik elkarriketarako borondatea erakutsi digute, baina ez digute aukera zehatzik eskaini

Amaia Arbeo: Pentsaren bitartez enteratu ginen, ekainean, Sorginola eraitsi gura zutela. Ordutik dakiguna guk geuk galdetu dugulako jakin dugu.

Olatz Gorritxategi: Eraisteko asmoa dutela jakin eta gero, udal gobernu kideekin hartu-emanetan ipini ginen, eta proiektua zelakoa izango zen azaldu ziguten.

Eneko Munitxa: Obrak martxoan hasi eta eraikina maiatzetako botata egongo dela esan digute. Bota eta gero, lur eremua "deskontaminatzeko" asmoa dute.

A. A.: Udaleko ordezkariekin batu eta gero, zenbait aukera aztertzen dabilzala esan digute. Elkarriketarako borondatea erakutsi digute, baina ez digute aukera zehatzik

eskaini. Gure ustez, hau aukera ona izan daiteke udalak espazio bat eskaintzeko gure proiektuagaz jarraitu dezagun.

O. G.: Pentsaren bitartez, EAJk gure proiektuari laguntzeko eskaera egin duela ere jakin dugu, gugaz zuzenean hartu-emanetan ipini ez diren arren.

E. M.: Argi ikusten dugu Durangok gaztetxe baten beharrezko duela momentu honetan. Modu batera edo bestera, espazio berri baten bila joan behar dugula uste dugu. Esan dugun moduan, gu elkarriketarako prest gaude, eta ikusiko dugu noraino negoziatu daitekeen.

Durangok gaztetxea behar duela azpimarratu duzue.

A. A.: Sei urtean egon gara lanean, eta udalak eskaini ez duen espazio bat izan da hau, eragile askoren aterpe; poesia errezitaldiak, kontzertuak, tailerrak, denerik egin da bertan, eta jende desberdin asko etorri da, adin eta interes desberdinetakoa.

O. G.: Guztion artean proiektu hau babestea gustatuko litzaiguke, eta baita jende gehiago batzea ere, jakina.

E. M.: Inguruko gaztetxei ere eskatu diegu babesa. Inguruko herrietan ere ikusi ditugu desalojoak, eta momentu ona da denok batzeko, beharrezkoa dugulako.

'Espekulazio jokaldia' dela ere badiozue.

A. A.: Spirilurren bitartez, diru publikoagaz eskola pribatu batentzat izango diren lurrak erosi dira, eskola hori egun dagoen lurretan etxebizitzak egiteko gero. Horren atzean zeozer dagoela iruditzen zaigu.



Indabak rock taldeak emanaldia eskainiko du Sorginolan.

'Gazte Zartada' egitasmoaren aurkezpena, gaur, Sorginolan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Herriko gazte mugimenduko hainbat kide Gazte Zartada izeneko egitasmoa prestatzen dabil, eta bariku honetan egitasmo horren Durangaldeko aurkezpena egingo dute Sorginolan. Gazte Zartadaren atzean dauden gazte

teek diotenez, "dena" eraldatzeko asmoa dute, eta, horretarako, "gakoak bilatzen" eta elkarregaz "saretzen" dabilta.

Gaurko aurkezpenean, "eskaldeko hainbat arlotako gazte mugimenduak" batuko dira. 18:00etan egitasmoa aurkeztu

eta solasaldia egingo dute. Gero, 19:00 bueltan, pintxopote musikak egingo dute, eta 20:00etan kontzertu sorta. Slide taldeak, Indabak taldeak eta DJ Dowe disko jartzaileak emanaldiak eskainiko dituzte.

Gazte Zartada Gasteizen egingo da, martxoaren 18tik 20ra. Gaztetxeen, mugimendu feministaren eta ingurumenaren aldeko gazte mugimenduen parte hartuko dute, besteak beste.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko otsailaren 11
20. urtea - 881. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

DURANGO • EKAITZ HERRERA
Durangoko Udalak merkatu plaza eta hornidura merkatua berritzeko proiektua du esku artean, eta, egunotan, prozesua zelan dagoen azaldu die bertan inplikaturiko eragileei. Jendaurrean aurkezturiko dokumentuan, merkatua erreformatzeko diseinu proposamena aurkeztu du udalak. Bertan, eraikin berriak islatu beharreko ezaugarriak jaso dituzte: publiko objektiboa, bezeroaren esperientzia, aginte-koadroa, beharrianen programa eta eragiketen mapa. Udalaren berbetan, horiek izango dira etorkizuneko arkitekturea-diseinua garatzeko erabiliko dituzten gidalerroak. Proiektu "arrakastatsu bat" egin gura dute, eraikinaren "espiritua" berrituta.

Merkatuaren eraikina berritzeko prozesua 2019an hasi zen. Lehenengo fase batean, merkaturiko eragileen beharrianak aztertu zituzten. Horren ondoren, diseinua garatu dute. Hemendik aurrera, aurreproiektua idazten hasiko dira. 2023an hasi gura dute eraikina berritzen.

Merkataritza Foro berria
Bestalde, Durangoko Udalak eta merkataritzaren sektorean inplikaturiko eragileek Merkataritza Foro Egonkorra sortu dute.

Dena prest etorkizuneko merkatu plaza izango denaren aurreproiektua idazten hasteko

Udalak Merkataritza Foro Egonkorra ere sortu du dendeekin, tabernekin eta turismoaren sektoreko kideekin



Durangoko udaletxean egindako bilera.

Udalak Merkataritza Foro Egonkorra sortu dute. Egitura berriagaz etorkizuneko erronkei aurre egin gura diete, besteak beste herriko zerbitzuak modernizatuta eta kontsumo ohitura berrietara egokituta.

Egitura Durangoko Udalak, Dendak Baik, ostalaritza elkarteak eta Turismo Bulegoak sortu dute. Foroa, Merkataritza Indarberritzeko Plan Bereziaren (PERCO) zati da.



Ezkurdiko frontoia gaur egun.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 488.000 euroko ekarpena Ezkurdiko frontoia berrizteko

DURANGO • EKAITZ HERRERA
Durangoko Udalak lehiaketa publikora atera ditu Ezkurdiko frontoia berritzeko lanak, eta "datozen hileetan" ekingo die obrei. Lanok egin ahal izateko, laguntza modura, Bizkaiko Foru Aldundiak 488.316 euroko ekarpena egin dio udalari. Horrenbestez, milioi bat euroko

oinarrizko aurrekontuagaz, frontoia berriztu egingo dute; izan ere, itoginak daude eta bere azpiegitura zaharkituta dago. Udal agintariek eskertu egin dute Aldundiaren ekarpena, eta adierazi dute erakundearen arteko lankidetzak pilotalekua birmoldatzeko proiektua indartuko duela.



BETI GERTU!



ELORRIORA



HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

22. tantora heltzeko asmoagaz aurkeztu dute 22. Korrika Elorrion

Elorriko Udalak eta AEK-k antolatuta, 22. Korrika aurkezteko ekitaldia egin dute asteon



Eguaztenean egindako prentsaurrekoko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtebeteko atzerapenagaz bada ere, badator 22. Korrika, 22. tantoa egiteko asmoagaz. Horrela aurkeztu dute asteon Elorrion, Iturri Kultur Etxean egindako aurkezpen ekitaldian. "22. Korrikan 22. tantoa egin behar dugu, ezinbestean. Orain egiten ez badugu, atzerapauso bat emateko arriskua daukagu", adierazi zuen eguazten arratsaldeko aurkezpen ekitaldian Mertxe Mugika AEK-ko kideak.

Aurkezpen ekitaldian, 22. Korrikan parte hartzearen garrantzia azpimarratu zuen Mugikak "eta,

zelan ez, behin Korrikan parte hartuta euskaraz parte hartzea".

Gainera, AEK-ko kideak jakinarazi zuen aukera asko dagoela Korrikan parte hartzeko: kilometroa, petoak zein Korrikako arropa erosita. Dagoeneko materiala euskarategian dagoela azaldu zuen.

Jesus Guridi Elorriko Udaleko zinegotziak adierazi zuen Elorriok bat egiten duela Korrikagaz, ekitaldiaren leloagaz eta Korrikak bultzatzen duen berba bakoitzagaz. "Lozorroan daramatzagu azken hiru urteak, aktibatze ordua da. Edo aktibatzen gara edo gu-

reak egin du. Rock & Roll apur bat jotzeko ordua da", jarraitu zuen Guridik.

Mertxe Mugika AEK-ko kideak jakinarazi du aukera asko dagoela Korrikan parte hartzeko

Bestalde, "edo denok batera" egiten dugula edo bestela "nekez egingo" dugula aurrera gaineratu zuen Mugikak. Horregaitik, 22. Korrikan parte hartzeko deia egin zieten elorriarrei.

Herritarren %91k biribilgunea gura dute Kurutziaga inguruan

Hurrengo pausoa Elorriko Udaleko teknikari eta arduradunekin kontrastea egitea izango da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Kurutziagako egungo bidegurutzearen alternatiba modura, elorriarren %91,23 biribilgunea egitearen alde agertu dira. Udalak asteon jakinarazi duenez, 16 urtetik gorako 4.795 elorriarren artean 1.178 lagunek eman dute iritzia, eta hortik 1.072 izan dira baliodunak.

"Parte hartzearen aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, herritarren iritzia aintzat hartuta, eta prozesu parte hartzaile honetan

argi geratu da herritarrek Elorriko etorkizunagaz zerikusia duten proiektuetan euren ekarpena egin gura dutela. Herritarren partaidetza funtsezkoa da politika ulertzeko eta gobernatzeko dugun moduan", azaldu du Idoia Buruaga alkateak.

Udal arloetako teknikari eta arduradunekin azken kontrastea egitea izango da hurrengo pausoa. Behin erabakia hartuta, lizitazioa aterako dute behin betiko proiektuaren idazketa.



Bibilgunea zelan geratuko litzatekeen erakusten duen infografia.

Sei Urte, Pleura, Malakias & Maixa Berrizko Hiltegixe Gaztetxearen urteurren jaian

Aurten 23 urte beteko dira Berrizko Gaztetxea zabaldu zutenetik. Antolatzaileek egitarau zabala antolatu dute astebururako

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizen egun biko egitaraua antolatu dute Hiltegixe Gaztetxearen urteurrena ospatzeko. Gaur emango diote hasiera egitarauari, otsailak 11, 18:30ean, txokolatada batez. Gero, ipuin kontalari bat egongo da.

Kontzertuak Gaztetxean

Zapatuan, otsailak 12, marianito jiragaz emango diote hasiera egunari, 13:00etan, Gaztetxetik hasita. 14:30ean, herri bazkari autogestionatua egingo dute. Bakoitzak bere tuperra eraman beharko du. Urteurren asteburuari kontzertuekin emango diote amaiera. Sei Urte, Pleura eta Malakias & Maixa arituko dira Gaztetxe oholtzan, 21:00etan hasita.



Sei Urte taldeko kideak.

'Otsaila esnatzera gatz' lelopean egitarau sorta prest, Amillenan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Amillena Arrazolako bentan egitarau sorta antolatu dute otsailarako, 'Otsaila esnatzera gatz' lelopean.

Biharko, otsailak 12, 'Impro' ikastaro trinkoa antolatu dute. 10:00etan emango diote hasiera ikastaroari eta 19:30ean amaituko da. Kankaneo Teatrok eskainiko du ikastaroa. Eguerdian, tarte bat hartuko dute bazkaltzeko. Gauean, 22:30ean, +2D Impro ikuskizuna eskainiko dute. Ikuskizunaren aurretik, 20:00etatik 22:00etara, hamburgerak eskainiko dituzte bentan.

Bestalde, otsailaren 20rako, txitxiburduntzi eguna antolatu dute. Amillena Arrazolako bentakoei Kikirri salda emango dute.



Egin zaitez Anbotoren lagun

Orain, **%30 merkeago**

* Errenta aitorpenean
kenkaria jaso gura baduzu,
bete formularioa edo
deitu 946 816 558



Epe muga: otsailak 17a

"Iruzurak gertatu arren, abeltzain askok ez dituzte salatzen, baina garrantzitsua da zabalkundea ematea horrelakorik berriro gertatu ez dadin"

Irazolak Huescatik Kantabriara 22 txahal garraiatu zituen. Txahalak saldu zituenak eta berak ez dute ordainik jaso

MALLABIA • JONE GUENETXEA
Juan Luis Irazola Mallabiko abeltzain eta garraiolariak iruzurra salatu du. Ganaduzaleen arteko negozio batean, ustezko iruzurgileak 15.700 euro utzi ditu zorretan. Irazolak azaldu duenez, ganaduzale batek Biescasetik (Huesca) Kantabriara 22 txahal garraiatzeko kontratatu zuen. Joan zen barikuan, urtarrilak 28, txahal horiek Huescan jaso eta mallabitarrak Cantabrian entregatu zizkion ganaduzaleari. Biescaseko abeltzainak 15.000 euro jaso behar zituen 22 txahal horiengaitik, eta Irazolak 700 garraioagaitik.

Mallabitarrak dioenez, kobratzeko orduan Kantabriako ganaduzaleak ordainketa eginda zegoela erakutsi zion mugikorrean. "Barikua zenez, pentsatu nuen transferentziak denbora tardatu zezakeela nire kontuan agertu arte", dio Irazolak. Baina kopuru hori oraingoz ez da mallabitarraren kontuan agertu, ezta Biescasekoa-

ren kontuan ere. Horregaitik, gertaturikoa publiko egitea erabaki dute. "Horrelako iruzurak gertatu arren, abeltzain askok ez dituzte salatzen, lotsagaitik edo. Baina garrantzitsua da gertatu denari zabalkundea ematea jendea jakinaren gainean egon dadin eta horrelakorik berriro gertatu ez

Publikoki salatzeaz gainera, salaketa ipini dute, bakoitzak dagokion lekuan

dadin", gaineratu du Mallabiko Goita auzoko abeltzainak. Publikoki salatzeaz gainera, Irazolak eta beste abeltzainak salaketa ipini dute, bakoitzak dagokion lekuan. Orain, salaketa horrek egin dezakeen bidearen zain daude. Baserri mundua ez dabil sasoi ona pasatzen, eta, Irazolaren ustez, horrelako iruzurak "geroago eta ohikoagoak" dira.



Juan Luis Irazola Mallabiko herrigunean.

MAÑARIA • J.D.
Gutxi falta da Asiako liztor erreginak euren gordelekuetatik irteteko. Hurrengo asteetan, habia berri bat egiten eta arrautzak erruten hasiko dira. Espezie inbasore honen elikagairik kutunenetarikoa erlea da eta azken hamarkadan kalte handia eragin dio espezie honi. Josu Urizarrek ondo daki hori, bertatik bertara ikusten duen kontua delako Otxandion, Mañarian eta Pobesen (Araba) dituen erlauntzetan. Esperientzia zabala du liztor erreginak ehizatzeako tranpak egiten, eta jakintza hori Mañariko pilotalekuan partekatuko du zapa-tuan, 11:30ean, guraso elkarteak antolatutako berbaldian.

"Oraintxe da momenturik onena tranpak ipintzeko", dio seguru Urizarrek. "Beroa egiten hasten denean, Asiako liztorra bere gordelekuetatik irteten hasiko da. Lehenengo liztor horiek guztiak erreginak dira. Esango nuke Mañarian laster hasiko direla irteten, pare bat aste barru edo. Erreginak habia egiten eta arrautzak erruten hasten direnean, populazioa arin haziko da. Beraz, garrantzitsua da orain, sasoi honetan, harrapatzea", adierazi du Otxandion bizi den mañariarrak.

Hainbat teknika dago erreginak harrapatzeko. Asko erabiltzen den tranpa bat honako hau da:

Asiako liztorrak harrapatzeko tranpak zelan egin ikasteko aukera dago bihar Mañarian

Guraso taldeak antolatu du berbaldia eta Josu Urizarrek eskainiko du. Urizarrek erlauntzak ditu Mañarian, Otxandion eta Pobesen (Araba), eta aditua da liztorrentzako tranpak egiten



Asiako liztorrek egindako habia bat.

plastikozko ontzi batean liztorra erakarriko duen likido bat ipintzea. "Ardo zuria, zerbeza beltza eta ahabi zukua nahastuz sortzen den likidoa da onena. Liztorra erakarriko du, baina ez erlea. Ardo zuriak alkohola du eta erleari ez

zaio gustatzen. Listorrari bai, baita zerbeza ere", dio Urizarrek. Ontzia zarratu eta zulotxo bat egin behar da bertan, liztorra sartu dadin. Denboragaz, likidoa garraztu egiten da eta 15 egunerik behin aldatzea komeni da.

Mendi irteera bat eginda, Ruben Garate gogoratuko dute Otxandion

OTXANDIO • J.D.
Asteburu honetan, 22 urte beteko dira Ruben Garate 'Anselmo' hil zenetik. Garate Alcala Mecoko (Madril, Espainia) kartzelan lagun bat bisitatzetik bueltan zetorrela hil zen, auto istripuan. Harrezkero, Garateren heriotzaren urteurrenetan urtero

Motxotegira joateko, 09:30ean ipini dute hitzordua Otxandioko plazan

egin izan duten moduan, herri ekimenean Motxotegirako mendi irteera antolatu dute zapa-tu honetarako, dispartzioaren amaiera eskatzeko eta Garate gogoratzeko. 09:30ean ipini dute hitzordua, Otxandioko udaletxe pareko plazan, eta mendiko ton-torrera 11:00 inguruan heltzea aurreikusten dute antolatzaileek.

Izurtzako Udalak bizikleten guneari buruz galdetu dio Aldundiari

IZURTZA • J.D.
Astelehenean, bizikleten mantenurako gune berria bere osotasunean zegoen martxan. Bizikletak garbitzeko ura ere erabilgarri zegoen. Baina, bihamunean, kendu egin zuten ur-emia. Kontu honegaz hainbat hilabete dabilzala-eta, Izurtza-

Astelehenean ur-emia zuen, baina bihamunean kendu egin zuten berriro

ko Udalak azpiegitura oraindino guttiz erabilgarri ez egotearen arrazoiak zeintzuk diren galdetu dio Bizkaiko Foru Aldundiari, eta ur-emia ahalik eta lasterren martxan ipintzeko eskatu dio. "Izurtza inguruan bizikletari dezente ibiltzen da mendian, eta behar duten zerbitzu bat dela uste dugu", adierazi dute udaleko iturriek.



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Zurgintza

ATERPE AROZTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





Gorabideko langileak Abadiñon egindako elkarretaratzean.

Gorabideko langileek murrizketak salatu dituzte elkarretaratzea eginda

"Lan baldintza duinak" bermatzea eta murrizketak amaitzea eskatu dute langileek

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gorabideko langileek otsailaren 3a, San Blas eguna, baliatu zuten euren kexak plazaratzeko. Ferialeku plazan egindako mobilizazioan, azken urteetako murrizketak salatu zituzten eta "lan baldintza duinak" bermatzea eskatu zuten. "Azken urteotan murrizketa handiak izan ditugu, bai kontratazio berrietan bai gaineko langileenetan ere", adierazi zuten.

"Murrizketak pandemia aurretik datoz, baina pandemiagaz areagotu egin da dena. Pandemiak zuzenean kolpatu gaitu. Ez dugu

denbora libre gehiago eskatzen, ezta lan gutxiago egitea ere; gure lan hitzarmena errespetatzea, hori baino ez dugu eskatzen", diote Gorabideko langileek.

Enpresak langileak bazterrean utzi dituela salatu du enpresa batzordeak

Horrez gainera, azaldu dute Gorabideko egoitzetan bizi diren kideak direla kaltetuenak egoera

honetan. "Langileon lan baldintzak kaskartzean, egoitzetan bizi diren bizi kalitatea asko kaltetzen da, eragin zuzena du", esan dute.

Enpresa batzordea, kritiko

Bestalde, LAB, ELA eta ESK sindikatuek osaturiko enpresa batzordea kritiko agertu da langileen egoeragaz, eta enpresak langileak bazterrean utzi dituela salatu du: "Pandemia osoan langileek ahalegin handia egin duten arren, hiru urte daramatzate soldata igoerarik barik eta behin-behinekotasun indize neurrigabeekin".

EH Bilduk N-634 errepideko proiekturako ekarpenak egitera dei egin die zaldibartarrei

Bizkaiko Foru Aldundiaren proiektuari alegazioak egiteko epea martxoaren 10era arte dago zabalik



N-634 errepidea Zaldibarko herrigunetik igarotzen da.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Bizkaiko Foru Aldundiak Zaldibarren N-634 errepidea hobetzeko proiektua egin du. Zaldibarko EH Bilduren esanetan alegazioak egiteko epea martxoaren 10era arte dago zabalik.

EH Bilduren ustetan, herritarrek ekarpenak egitea garrantzitsua da, eta, hori dela eta, lau deialdi egin dituzte proiektuari buruz informazioa zabaltzeko: otsailaren 11n (17:00etan udaletxeko plazan), 12an (11:00etan San Andreseko parkean), 13an (Artiako lurpekoaren ondoan) eta 25ean (17:00etan udaletxeko plazan).

"Horrelako proiektuak egi-ten direnean, herritarren parte-hartzea sustatu behar dela uste dugu. Informazioa era errazean eman, iritziak eta galderak jasotzea eta herritarrekin zuzeneko hartu-emana izatea positiboa da, EH Bilduren ustez", azaldu du Eneritz Azpitarte EH Bilduko zinegotziak.

Zaldibartarrek izan ditzaketen dudak argitzeko, EH Bilduko kideek proiektuari buruzko "informazio guztia" eta planoak erabiliko dituzte. Lanak 2023an dira hastekoak, EH Bilduren esanetan, eta proiektuak San Andres auzoan eragingo du, batez ere.

Frontoiko argiteria aldatuko dute Iurretan, eraginkortasun energetikoa handitzeko

Udalak 500 watteko 14 led proiektore eta erregulazio eta kontrol sistema ipiniko ditu Kepa Arroitauregi frontoian



Frontoiko argiteria aldatzeko lanak hile bian amaituta egotea aurreikusi dute

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak Kepa Arroitauregi frontoiko argiteria aldatuko du. Orain dagoen argiteria kendu eta 500 watteko 14 led proiektore instalatuko dituzte, eta erregulazio eta kontrol sistema bat, %50, %75 eta %100ean funtzionatzeko aukeragaz. Esleitu berri dituzten lan hauetan, udalak 14.600 euroko inbertsioa egingo du, eta hile biko epean amaitzea aurreikusi dute.

Eraginkortasun energetikoari dagokionez, lan hauek "aurrerapen handia" eragingo dute, azaldu dute. "Izan ere, orain dauden halogenu metalikozko lanpararik eraginkorrenek 25.000 ordu irauten dute eta led lanparek 100.000 ordu baino gehiagoko bizitza erabilgarria dute", diote. Iñaki Totorikaguen alkatearen berbetan, "horrelako jarduerekin udal eraikinetako argiteria publikoa hobetzeko, eraginkortasunez erabiltzeko eta energia aurrezteko konpromisoari eusten diogu, ingurumena hobetuz eta karbono aztarnak gutxituz".

Garaiko Herriko taberna itxita egongo da otsailaren 21era arte

Tabernako beharginek dagokien oporraldia hartu zuten astelehenean. Beraz, taberna itxita egongo da aste bian

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko Herriko taberna zarratuta dago egunotan. Beharginek dagokien oporrak hartu dituzte eta establezimendua itxita egongo da hilaren 21era arte. Taberna astelehenean dago zarratuta. Une honetan, Garaiko herriguneko ta-

berna biak zarratuta daude, Garai jatetxea ere itxita dago-eta, abendutik. Laster, arduradun berri batzuek jatetxea berriro zabaltzea itxaroten dute. Herriko taberna zabaldu bitartean, garaitarrak Otea-Lora elkartera joaten dira kopautxo hartzera.



Garaiko Herriko Tabernako sarrera.

Hitanoz berbetako erraztasuna duten herritarrak behar dituzte hitanoa landu gura duten kideei laguntzeko

Hiketalagun egitasmoko kideak bidelagun bila dabilta, hau da, hitanoz berba egiten lagunduko dieten kide bila. Ez dute aditurik bilatzen, hitanoz modu naturalean berba egiteko gai diren kideak baino. Egun, 25 herritar dabilta hitanoa lantzen



Hiketalagun programako ikastaroetarik bat.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

"Ez dugu aditurik bilatzen, baina bai egunerokoan, modu naturalean, hitanoa erabiltzeko gaitasuna duen jendea". Halantxik adierazi dute Durangaldeko Berbalagun egitasmoko kideek hitanoz modu naturalean berba egiteko jende bila dabilzala. Momentu honetan, 25 bat dira Durangaldeko Hiketalagun programan parte hartzen dabilzan herritarrak. Hitanoa ikasi edo hitanoan sakondu gura dutenak dira gehienak, baina bidelagun faltan daude, hau da, hitanoa behar den moduan garatzen lagunduko dien jende faltan.

Irati Anakabe Hiketalagun egitasmoaren koordinatzailea da. Dioenez, "herritar askok etxean entzun du hitanoa, baina eten

moduko bat egon da transmisioan. Eta orain, salto hori egitea gaxagoa da". Hortik dator hitanoa lantzeko beharrazana, eta hortik hitanoa lantzen lagunduko duen jendearen beharrazana.

Taldeakako lanketa laster

Hiketalagun egitasmoak urtea hasi berri ekin zion ibilbideari. Orain arte, lau ikastaro egin dituzte, oinarritzko printzipioak lantzeko. Azkena asteon, eguaztenean. *Poltsikorako hitanoa* liburuxka hartuta dabilta lanean. Hurrengo pausoa mintzapraktika taldeei ekitea izango da. Durangaldeko hainbat herritan sortuko dituzte taldeak. Aurreikuspenen arabera, Iurretan, Abadiñon edo Elorrion, besteak beste.

Irati Anakabek azaldu du egitasmoan parte hartu gura dutenek zabalik dutela horretarako atea. Honako bide hauek ipini ditu horretarako: 639400786 telefono zenbakia eta *durangaldea@aei.eus* helbide elektronikoa.

Ogenabekoa eta Gudari kale inguruak urbanizatzen hasi dira Zornotzan

Urbanizazio obra berriak Ogenabekoa kalearen eta Ogenbarrena kalearen arteko eremuan egiten dabilta



Anartz Gandiaga, Andoni Agirrebeitia eta Alnhua Salterain.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak Ogenabekoa eta Gudari kalearen zati bat urbanizatzeko obrak hasi ditu. Lanekin, espaloien zabaleraren handitu eta oinezkoen zirkulazioa erraztuko dute, eta, zintarriak kenduta, oztopoak kendu eta ibilbideak berdinduko dituzte. Aldi berean, landaredia eta zuhaitzak sartuko dituzte. Bestalde, ingurunea azpiegitura gehiagoz hornituko dute, argiteria, hustubide eta saneamendu lanak eginda. Zornotzako Udalen berbetan, urbanizazio lan hauek izango dira aurtengo inbertsio nagusietarikoa. 1.347.000 euro ipiniko dituzte horretarako.

Aurreikuspenak Ixerangon

Bestalde, obren fase hau baliatuta, Ixerango kalean 43 aparkaleku berri egitea aurreikusi du udalak. Gaur egungo espaloia kendu eta argiztapen zein saneamendu lanak egin gura dituzte bertan.

Emakume nekazarien eta artisauen azokarako izena emateko epea, zabalik

Martxoaren 5ean egingo dute azoka; XXIV. edizioa izango da

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotza Euskal Herri osotik ailegaturiko emakume nekazarien eta artisauen topaleku izango da martxoaren 5ean. Postua ipini gura duenak zabalik dauka eskabidea udaletxean aurkezteko epea.

Zehaztasun guztiak jakinarazi ez dituzten arren, udalak aurratu du 20 bat postu eta txosna bat egongo direla. Ohikoa den moduan, Zelaieta parkean egingo dute azoka, Martxoaren 8ko aldarrikapenen testuinguruan.



Jaialdi arropa markako kideak azokaren edizioetako batean.

BETI ZUREKIN

Bertako Igogailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua. **Salbuespenik gabe.**



bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus



ZULORA JAUSITAKO
OBJEKTUAK
BERRESKURATZEA

HARRAPATZE
EGOKERAK

IGOGAILUKO
ZARATAK

365/24/7

ARABA
945 712 822
GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935
NAFARROA
848 870 917

Durangoko mugimendu feministak deialdi bi antolatu ditu Martxoaren 8a prestatzeko

Durungaldeko Itaiia taldeak manifestaziora deitu martxoaren 8rako; 18:30ean izango da



Durangon egindako manifestazioko argazkia.

DURANGALDEA • M.Z.

Durangoko eragile feministak motorrak berotzen hasi dira Martxoaren 8ari begira. Egun horretako aldarrikapenak prestatze aldera, batzar bi antolatu dituzte. Lehenengo bilera otsailaren 13an egingo dute, domekan, 11:00etan. Bigarrena hilaren 23an iango da, 19:30ean. Bai bata eta bai bestea Andragunean izango dira.

Itaiak, manifestazioa

Durungaldeko Itaiia antolakundeak prest du Martxoaren 8rako mobilizazioa. Manifestazio bat eginda, Durangoko kaleak zeharkatuko dituzte 'Emakume langileen askapenerako sozialismoa eraiki!' lelopean. Manifestazioak 18:30ean irtenango du, Ezkurdiko kioskotik.

Politikan

Mireia Elkororibe
Zenikaonaindia
EAJ



Durangorako komun publiko egokiak

Durangon hiru komun publiko daude gaur egun, Landakon, Madalenen eta Ezkurdin, EAJ-ren legegintzaldietan jarriak. Une honetan, komun horiek egoera higieniko txarrean daude, eta kasu batzuetan bi hilabete daramatzate itxita. Gure udalerrian gero eta adineko pertsona gehiago daudela eta herritar guztientzako zerbitzua dela kontuan hartuta, behar-

Premiazkoa da komun horiek beti prest eta, jakina, herritarrei irekita egotea

beharrezkotzat jotzen dugu zerbitzu horiek egoera onean mantentzea. Premiazkoa da komun horiek beti prest eta, jakina, herritarrei irekita egotea.

Hori dela eta, Durangoko EAJko udal-taldeak Herritarren Batzordean eskatuko du zerbitzu garrantzitsu hori higiene- eta osasun-baldintza onetan

EAJk eskatuko du zerbitzu garrantzitsu hori higiene- eta osasun-baldintza onetan egotea

egotea eta, jakina, irekita egotea, eta, aldi berean, eskatuko du Durangoko adinekoei azterketa bat egiteko eta haien beharren arabera aztertzeke udalerriko leku berri batean beste komun publiko bat jartzea.

Durango asko hazi da azken urteotan eta auzo berriak ditu; beraz, uste dugu une egokia dela komun publiko berri bat jartzeko, betiere higiene eta osasun baldintza egokietan mantentzen bada.

Durungaldea asteen

Durungaldean ospitale bat edukitzearen gaineko gaia Legebiltzarrera eramango dute

Durungaldea | Elkarrekin Podemos - Ezker Batuak otsailaren 17an eramango du gaia Legebiltzarrera. Koalizio morearen esanetan, Durungaldeko osasun azpiegitura "oso eskasa" da. Isabel González legebiltzarkideak dioenez, lehen mailako arretan izandako "murrizketek, osasun-langileen saturazioak eta pandemiak" egoera "jasanezin" bihurtu dute.

Komun publikoak modu egokian mantentzeko eskaria egin du Durangoko EAJk

Durango | Durangoko EAJk komun publikoen egoerari loturiko keak jaso ditu, eta kexa horiek gobernu taldeari helaraziko dizkio. Jeltzaleen berbetan, komun publikoak "txarto" daude eta eurentariko batzuk "hile bi" daramatzate zarratuta. Horrez gainera, beste komun publiko bat ipintzeko aukera aztertu dezan eskatuko diote jeltzaleek gobernu taldeari.

Identitate eta sexualitate aniztasuna lantzeko saioak, Zornotzako gurasoentzat

Zornotza | Zornotzako Berdintasun Sailak *LGTBIQ+ sexu dibertsitatea*, gure seme-alaben kontua ere bada izeneko berbaldia antolatu du. Hezkidetzat saioak leiho bat zabaldu gura du seme-alabekin sexualitateari buruz berba egiten laguntzeko. Ikastaroa matxoaren 2an izango da, 18:00etan. Izena otsailaren 21a baino lehenago eman beharko da udalaren web orrian.



Umeentzako jolasak margotu dituzte Durangoko Pedro Pablo Astarloa kalean

Durango | Durangoko Udalak umeentzako jolasak margotu ditu Pedro Pablo Astarloa kaleko zoruari, aurtengo Mugikortasun Astearen barruan. Martzel Do Nascimento grafitigile zornotzarrak egin ditu marrazketak. Jolasak herriko ikastetxeetako umeek aukeratu dituzte, bozketa baten bitartez. Berdintasun Sailak halantxik eskatuta, irudietariko bat LGTBI+ kolektiboaren aldekoa da.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

hitz
librudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzlibrudenda.com

Karama 4tet.

Liburu eta disko artean entsegu irekia.



Otsailak 17, eguna 19:00-etan. Hitz liburu-denda.


BURUARI KLICK!




ESAERA ZAHARRA


Beheko alfabetoa erabilita bete itzazu laukitxoak eta esaera zaharra zein den jakingo duzu.















**A**

**B**

**D**

**E**

**F**

**G**

**H**

**I**

**J**

**K**

**L**

**M**

**N**

**Ñ**

**O**

**P**

**R**

**S**

**T**

**U**


**X**

**Z**

DIFERENTZIAK


Topatu 10 diferentziak.





KUBOA

Zein da kubo egokia?



MATEMATIKA

 = 6  +  /  =

 = 2  x  +  =

 = 5

 = 8  +  x  =



'Lehendakari Gaia'

ANTZERKIA **BERRIZ :: Otsailak 12**

Txalo Produkzioak konpainiaren komedia ikusgai Berrizen

Lehendakari hautatu berria inbestidura-ekitaldirako berbal-dia prestatzen dabil; baina azken orduan arazo larri bat sortuko zaio: ekitaldia eta hitzaldia eman beharrak aurpegian tik arraro, barregarri eta eutsiezin bat eragin dio hautetsiari. Arazoa bideratzeko, psikiatra bat etorriko da eta bien artean

berriketaldi dibertigarri eta nahasgarria sortuko da. Horixe da Txalo Produkzioak konpainiak aurkezturiko *Lehendakari Gaia* obraren abiapuntua.

Iker Galartza eta Zuhaitz Gurrutxaga dira Ramon Madalaren komediako protagonistak. Berrizko Kultur Etxean egongo da ikusgai, zapatuan, 19:00etan.

Otsailaren 11n

DURANGO **berbaldia**
'Mugak guztiontzat dira', 17:00etan, Arrupe aretoan. San Jose Jesuitak ikastetxeak antolatuta, herritar guztientzat zabalik.

DURANGO **aurkezpena**
Zartada Gazte ekimenaren Durangaldeko aurkezpena eta solasaldia, 18:00etan, Sorginola Gaztetxean.
Pintxopote musikatua, 19:00etan.
Kontzertuak: Slide + Indabak, 20:00etan. Ondoren, Dj Dowe. Jarraian, **mikro irekia**.

ELORRIO **antzerkia**
'Semea pixka bat motelago dago bakarrik' (Ttanttaka Teatro), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA **ipuinak**
Yogipuinak: 'Lehoiaren bibotea' (Maite Arrese ipuin kontalaria), 17:00etan, herri bibliotekan.

MALLABIA **berbaldia**
Kafea eta solasaldia: 'Albiste faltsuak. Ikuspuntu feminista batetik', 18:30ean, Kultur Etxean.

Otsailaren 12an

ATXONDO **ikastaroa**
Antzerki inprobisazio ikastaro intentsiboa (Kancaneo Teatro) + bazkaria. Arrazolako Amillena bentan. Ikastaroa, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era izango da. Izena emateko, amillenaarrazola@gmail.com helbidera idatzi daiteke edo 94 627 89 07 telefonora deitu.

ZORNOTZA **ipuinak**
'Ttipi-Ttapa' (Ana Apika ipuin kontalaria), 12:00etan, udal liburutegian.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Peru Krokodiloa' (Kantu Kolore), 17:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 13an

DURANGO **antzerkia**
'MI hijo solo camina un poco más lento' (Ttanttaka Teatro), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

OTXANDIO **bisita gidatuak**
Otxandioko plazako indusketetara bisita gidatua, 11:00etan. Belen Bengoetxeak gidatuko ditu bisitak, eta beharrezkoa izango da alde zuzeneko izena ematea. Horretarako, otxandio.eus helbidera idatzi daiteke edo 945 45 00 20 telefonora deitu.

Otsailaren 14an

ABADIÑO **irakurzaletasuna**
Irakurketa kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Gaztelaniaz, Peru Magdalenak dinamizatuta.

ELORRIO **berbaldia**
'Nagusien egoitzak: Zaintza ala negozioa?', 12:00etan. Aldatzekuan. Hizlaria: Ahoztar Zelaieta.

Otsailaren 17an

ZALDIBAR **berbaldia**
'Lapurreta eta iruzurrak', 17:00etan, Nagusien Zentroan.

Otsailaren 18an

BERRIZ **antzerkia**
'Leihoak' (Teatro Paraiso), 17:00etan, Kultur Etxean.

ZORNOTZA **antzerkia**
'Tarara' (Hika Teatro) 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 19an

BERRIZ **musika**
Mr Kilombo, 19:00etan, Kultur Etxean. *Cortocircuitos* lana aurkeztuko du.

BERRIZ **ipuinak**
'Animalien ipuinak' (Lupe Lekuona), 12:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO **dantza**
'Arima' (Amaia Elizaranen konpainia), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

IURRETA **tailerra**
'Emozioak ilustratzen' (Leire Martínez), 09:30etik 13:30era, herri bibliotekan. Izena emateko: 94 681 27 26 telefono zenbakira deituta, bibliotekakoekintzak@iurreta.eus helbidera idatzita edo whatsapppe 688 86 37 36 telefono zenbakian.

ZORNOTZA **musika**
'Euskal Herritik bidaia' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Otsailaren 20ra bitartean

DURANGO **erakusketa**
'Mari Purierrerogaz berbetan. Museoko bildumako grabatuak', Arte eta Historia Musean.

Otsailaren 25era bitartean

ELORRIO **erakusketa**
'Exodoa: Hondakinak aterpe' (Euskal Fondoaren argazki erakusketa eta dokumentala), Iturri kultur etxean. Erakusketak Ankarako erasoaldi historikoen ondoren kurdu siriarrek bizi duten errealitatea erakusten du.

Otsailaren 26ra bitartean

ZORNOTZA **erakusketa**
Itsasne Zubiriren margolanak eta eskulturak, Zelaieta Zentroan.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Canta 2**
barikua 11: 17:00
domeka 13: 17:00

:: Durango
ZUGAZA

• **Uncharted**
barikua 11: 19:30/22:00
zapatua 12: 17:00/19:30/22:00
domeka 13: 17:00/19:30
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15
eguzatena 16: 18:00/20:15

• **Licorice Pizza**
barikua 11: 19:30/22:00
zapatua 12: 17:00/19:30/22:00
domeka 13: 17:00/19:30
astelehena 14: 19:00
martitzena 15: 19:00
eguzatena 16: 19:00

• **Un amor intranquilo**
barikua 11: 19:30
zapatua 12: 20:30
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 18:00
martitzena 15: 20:15
eguzatena 16: 18:00

• **Tailor (El sastre)**
barikua 11: 22:00
zapatua 12: 18:30
domeka 13: 18:00
astelehena 14: 20:15
martitzena 15: 18:00
eguzatena 16: 20:15

• **Valentina**
zapatua 12: 17:00
domeka 13: 16:30

:: Elorrio
ARRIOLA

• **Delicioso**
zapatua 12: 20:00
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

• **Ilargirantz**
domeka 13: 17:00

:: Zornotza
ARETOA

• **El día de la bandera**
barikua 11: 20:00
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:15

• **Tundama y el templo del sol**
domeka 13: 17:00

• **Libertad**
martitzena 15: 20:15

“Gurago dut antzeztu, baina, zuzentzen hasita, mundu zoragarria zabaldu zait”

'Torre de brujas' antzezlaneko gidoia idazteaz gainera, Irati Herrero protagonistaren azalean sartu da eta obra bera zuzendu du



Irati Herreros

Aktorea

ZALDIBAR | 1999

ANTZERKIGINTZA • ARITZ MALDONADO Hamahiru urte zituela hasi zen Irati Herreros zaldibartarra antzerki klaseak hartzen, Durangoko L'atelier eskolan. Ordutik, bere ibilbide profesionalean geroago eta urrats gehiago ematen dabil. Markeliñe

konpainiaren 'Zugan ni' lanean parte hartu zuen, eta Bizkaiko Antzerki Ikastegian ere trebatu da denbora honetan. Antzerkiaz gainera, pelikuletan eta film laburretan ere parte hartu du urte hauetan: 'Handia' filmeko Catalina izan zen, 'Otsoen

lurraldean' telesailako denboraldi bietan Ingumaren azalean jarri zen, eta 'Bizi Txarra' eta 'Decir no' proiektuetan ere parte hartu zuen. Azkenaldian, 'Torre de brujas' antzezlanaz aurkeztzen dabil. Aste honetan eta martxoaren 10ean ema-

naldiak dituzte Bilboko Zirkuituaren programazioari eskerrak. 'Zer gertatuko litzateke erre beharrean aberatsenen gozamenerako eskainiko bagintuzten?'. Abiapuntu hori du Herrerosen proiektu berriak.

'Torre de brujas' antzezlanaren emanaldia izan zenuten atzo. Zer kontatzen du antzezlanak?

Berrogeialdian idatzi nuen *Torre de brujas*. Beti eduki dut gogoaz sorgin ehizari buruzko zeozer idazteko. Gai horri buruzko istorio asko kontatu dira, eta nik beste ikuspuntu batetik kontatu gura nuen, istorio desberdin bat kontatu gura nuen. Orduan okurritu zitzaidan *Torre de brujas*. Egoera hipotetiko bat planteatzen dut: erre beharrean, sorginen dorrea deitzen den zoologiko moduko batera eramaten dituzte sorginak. Nire lanean, ahizpa biren arteko istorioa kontatzen da; aita bera ez duten ahizpa bi dira protagonistak, eta dorre barruan daudela sortzen diren gatazkak dira lanaren ardatza.

Egoera hipotetiko bat planteatzen dut, erre beharrean, zoologiko moduko batera eramaten dituztelako sorginak

laz estreinatu zenuten.

Iazko udan estreinatu genuen. Eduki dugun laguntza eskertu gura dugu, izan ere, kontakturik eduki barik gatxa da lanak estreinatzea edo mugitzea. Emanaldi bi egin genituen. Bilboko La Bernarda jaialdian estreinatu genuen, eta, gero, La Terminal gunean ere antzeztu genuen. Richard Sahagúnek asko lagundu zigun.

Publikoaren aldetik, zelako harre-ra izan du obrak?

Oso ona! Oso pozik gaude jaso dugun *feedback*agaz. Beldur apur bat genuen, profesional leze egin ditugun lehenengo saioak izan direlako hauek. Solasaldi moduko bat egin genuen emanaldietariko batean, eta jendeak esan zigun nabaritzen zela istorioari eman gura genion

Proiektu asko izaten dugu buruan, baina lehenengo pauso hori ematea oso gatxa izaten da; oso eskertuta nago

ikuspuntua. Lehen esan dudan moduan, emakumeei buruzko istorio berriak kontatu gura genituen, eta hori igarri egin dela ikusteak asko poztu gaitu.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Obra luze bat mugitzea gatxa da eta *Torre de brujas* mikroantzerki formatura egokitu gura dugu orain. Horrek lagundu egingo digula uste dugu. Aurrera begira, beste zeozerk ere irtengo du, seguru.

Obraren gidoia zuk zeuk idatzi duzu, antzeztu ere egiten duzu bertan, eta obrako zuzendaria ere bazara. Hiru lanetatik zein duzu gustukoena?

Antzezte lanetan hasi nintzen, baina, orokorrean, denerik egitea gustatzen zait. 2017an Barakaldoko Bizkaiko Antzerki Ikastegian ikasi nuen; bertan, 'zuzendaritza' ikasi nuen, eta, egia esateko, ordura arte ez nuen planteatu ere egiten zuzendari lanetan aritzea. Horren harira, istorio txiki bat idazten hasi nintzen, eta gustua hartu diot. Antzezte gehiago gustatzen zait, baina, zuzentzen hasita, mundu zoragarri bat zabaldu zait aurrean. Horrez gainera, industrian ateak zabaltzeko baliagarria dela iruditzen zait.

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

R.P.S. 21406

A. Urreta podólogo

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

GAER

DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Xabi 'Jabato' Lopez eta Mireia Gabilondo.

Tanttaka konpainiaren azken lanak bizitzaren inguruko gogoeta dakar

'Semea pixka bat motelago dabil soilik' antzezlan Durangon eta Elorrioren eskainiko dute

ANTZERKIGINTZA • A.M.
Asteburuan, Tanttakaren *Semea pixka bat motelago dabil soilik* obra ikusteko aukera bikoitza egongo da Durangaldean; lehenengoa gaur, barikua, 20:00etan, Elorrioko Arriolan, euskaraz. Eta domekan Durangoko San Agustín kulturgunean ikusi ahalko da, 19:00etan, gaztelaniaz. Urtarrilean estreinatu zuten obra, Bilbo-ko Arriagan.

Batez ere, emakumeak dira obra koral honetako protagonistak. Mireia Gabilondo Mia da, etxeko egunerokoan ezinbeste-

koa den andrea. Branko semeak (Xabi Lopez 'Jabato') 25 urte betetzen dituela-eta, ospakizun festa prestatu dute etxean, eta horixe izango da lanaren ardatza. Fernando Bernuesek zuzendu du lana, eta Gabilondo eta Lopezek gainera, zortzi aktorek lan egiten dute haren gidaritzapean. Miren Arrietak, Ane Gabarainek, Klara Badiolak, Asier Iruretagoienak, Maria Redondok, Martxelo Rubiok, Jose Ramon Soroizek eta Dorleta Urretabizkaiak. Jatorrizko lana Ivor Martinic kroaziarrena da; antzezlan 2011n

estreinatu zen, Zagreben. Protagonisten berbetan, familia baten "eguneroko bizitza eta gorabeherak" erakusten ditu lanak.

Topaklown bertan behera
Bestalde, eguaztenean, San Agustín kulturguneak eta Ganso&Cia konpainiak sare sozialen bitartez jakinarazi zuten aurten ez dutela Topaklown jaialdia antolatuko. Hala ere, San Agustínek eta Ganso&Ciak lanean jarraituko dutela iragarri dute, Durango "urteroko tontakeria dosirik" barik ez gertatzeko.

Mr Kilombok 'Cortocircuitos' lana aurkeztuko du Berrizen

Miki Ramírez musikariak bere bosgarren lana aurkeztuko du Kultur Etxean; otsailaren 19an izango da, 19:00etan

BERRIZ • A.M.
Mr Kilombo musikari madrildarra bere bakarkako bosgarren lana aurkeztuko du otsailaren 19an, Berrizko Kultur Etxean. Azkeneko lanean ere mimoz zainduriko berbak eta melodia itsaskorrek uztartu ditu Ramirezek. "Hit bilakatzen diren doinuak jaurtitzeko metraileta" lez definitzen dute bere lana. Zuzenean ere ez da atzean geratzen, eta eszenaratze "kementsua eta interaktiboa" dutela diote. Bakar-

ka ez ezik, artista ezagunen ondoan ere egin du bidea Mr Kilombok. Besteak beste, Rozalen, El Canijo de Jerez, Jenny & The Mexicats, El Kanka, Muerdo, Pedro Pastor eta El niño de la hipoteca artistekin kolaboratu du. Azken zazpi urteetan, Macacoren taldekidea ere izan da. Youtubeko profilean milioika bisita batzen ditu artista madrildarrak.

Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrera 6 eurokoa izango da.



Mr. Kilombo.

Gai librean

Haserrearen alokagai
Etxe hitzaren hiztegiko seigarren esan-gura «enpresa» da. Gertatzen dabilena ikusita, ordena errebisatu beharrean gaude.

Urtea hastearekin batera, eta bazter guztietan KPI igoera aipatzen eta noizten ari garela, etxe jabearen deia espero duzu, alokairua errebisatzeko. Ez duzuna espero da astearte batean telefonoa hartu eta hilero 50 euro gehiago ordaintzeko eskaera jasotzea: %10 gora hilabete batetik bestera, hartu edo utzi zeuk ikusi.

Eskolakide bati ere gauza bera gertatu zaio, eta azala beste kolore batekoa dutenek gaitzago dute oraindik. 900 euro eskatu zaizkio familia boliviarrak bati Elorrioren etxe bat alokatzeko, horixe arrazismoaren plusa aterpearen ukazio espekulatibo honetan.

Asko igo dira etxeen prezioak azken urteetan eta epe luzeko maizterrak ez



Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

Alokatzaileek gehiago irabazi ahalko lukete alde egingo bagenu. Gure bizitzak bost axola

Ia-ia gutxieneko soldataren parekoa da alokatzeko etxe askoren prezioa gurean. Postal polita

gara errentagarriak. Soldataren herena kostatzen zaigu bizi garen eta zaintzen dugun etxearen alokairua, baina hilero-hilero transferentzia automatikoz hutsik egin gabe ordaintzea ez da nahikoa. Alokatzailak gehiago irabazi ahalko lukete alde egingo bagenu. Gure bizitzak bost axola.

Idealista izatea beste gauza bat zela uste genuen, ezetz diosku Internetek: Durangaldean hiru etxe baino ez daude alokagai—nork egingo du etxe hutsen errolda bat?—, merkeena 850 euro hilean, 65 metro karratu. Ia-ia gutxieneko soldataren parekoa da alokatzeko etxe askoren prezioa gurean. Postal polita.

«Ez ezazue dirua alferrik bota eta eros ezazue etxe bat». Denon eskura ez dagoen beste enpresa bat. Halere, nahi ez duenak ere erosi du azkenean. Alokatzeko baino merkeago bihurtu baitute erostea. Bankuak pozik, eta gu haserre.



Oskar Ordoñez Vazquez

Dakarrekopilotua

ZORNOTZA | 1976

genien, baina, hala ere, lur hartu zuten eta medikua gugana etorri zen ondo geunden segurtatzeko eta urik behar genuen galdetzeko. Hori guztia desertuaren erdian. Eskertzekoa da.

Ahalik eta aurreren amaitzea ala esperientzia topera bizitzea, zein zen zuen lehentasuna?

Esperientzia bizitzea, dudarik barik. Askotan gelditu ginen beste taldeei laguntzen, eta oso harro gaude hori egin izanaz. Beste jarra bat hartuta, postu batzuk aurrerago amaituko genuen, baina ez zen esperientzia berdina izango. Livingstonek esan zidan: "Lehenengo Dakarra denetan bereziena da, ez duzu sekula ere ahaztuko eta bizi topera!". Horixe egin nuen.

Izan zenuten hartu-emanik Dakarra irabaztera joan ziren talde eta pilotu boteretsuekin?

Bai. Begira, guk ez generaman asistentziarik, 30.000 euroko gailuak zelako. Behin, ibilgailuko gauza bat konpondu guran nabilela, mekanikari bat hurreratu, laguntzarik behar nuen galdetu eta behar nituen torlojuak ekarri zizkidan. Orduan ez nekien nor zen. Gerora jakin nuen Jesus Callejaren taldeko mekanikaria zela. Laia Sanz eta Nani Roma ere ezagutu nituen.

Carlos Sainz, Nasser Al-Attiyah...

Behin, semaforo batean, Nasser gure ondoan geratu, leihotik begiratu eta erpuruera altxatu zigun. Besoko ileak tente ipini zitzaizkidan. **Zergaitik keinu hori?**

Guk Toyota bat generaman eta han asko maite dute marka hori. Ez dakit zergaitik den, baina denak Toyota zaleak dira.

Bueltatuko zara Dakarrera?

Ez dakit. Lagun batzuek diru bilketa bat egin dute. Beste batzuek esan digute euren ibilgailua utziko digutela. Niretzat keinu horiek hunkigarriak dira, baina errealtatea da babesleak behar ditugula; bestela, oso gaxa izango da.

"Dakar rallyan parte hartzea umetatik amesten nuen eta ez nuen pentsatzen errealitate bihurtuko zenik"

Oskar Ordoñez zornotzarra aurtengo Dakar Rallyan parte hartu duen euskaldun gutxiatariko bat da eta rallya amaitzea lortu du

AUTO LASTERKETAK • J.DERTEANO

Zornotzarrak ez ditu berehalakoan ahaztuko Saudi Arabiako paraje mortu eta lehorretan bizitako abenturak. Ignacio Corcuera 'Livingstone' pilotuaren kopilotu lanetan aritu da, Toyota BJ40 batean. Makina bat zailtasuni elkarregaz aurre egin eta munduko rallyrik gogorrena amaitzea lortu dute. Beste taldeei laguntzeko astia ere izan dute.

Zelan sortu zitzaizun Dakar rallyan parte hartzeko aukera?

Ni berez pilotua naiz, Livingstone antzera. Normalean trialean ibiltzen naiz eta badira 25 bat urte Livingstone ezagutzen dudala. Berak behin baino gehiagotan parte hartu du Dakarren, eta aurren bere kopilotua izatea eskaini zidan. Orain hamar urte ere eskaini zidan; orduan, laguntzaile modura gura ninduen, baina lanean nabilen eta ezin izan nuen. Dakar rallyak denbora eta egun asko eskatzen ditu. Ibilgailua prestatzea, izapideak betetzea... Sinestezina da zenbat izapide bete behar diren!

Pentsatzen zenuena bezain ona izan da esperientzia?

Uste nuena baino hobea! Dakarren parte hartzea umetatik amesten nuen eta ez nuen pentsatzen errea-

litate bihurtuko zenik. Nire bizitzako lasterketa izan da.

Han bizitako zer ez zaizu sekula ere ahaztuko?

Bertakoeak erakutsi duten hospitalitatea. Euren jesartza gonbidatzen gintuzten eta jan-edana eskaintzen ziguten. Gogoan dut behin polizia batek gertatu zitzaiguna. Rallya hasi aurreko egun batean, ibilgailuagaz arazo bat izan genuen eta garabiari deitu genion. Bada, poliziak trami-teak arindu zizkigun eta te bana hartzera eta gozo batzuk jatera gonbidatu gintuen. Horrelako hainbat anekdota dugu.

Eta badago irudi edo imajinaren bat buruan iltzatuta geratu zaizuna?

Eguzkia zeruertzean agertzen eta eguna argitzen zuen une hori, urrunera dromedarioak pasatzen zebiltzala... Horrelako irudiak ez zaizkit sekula ere ahaztuko.

Zein izan da rallyan arriskurik handiena pasatu zenuten ueua?

Behin, ibilgailua irauli egin zitzaigun duna batean, baina, tira, ez zitzaigun ezertxo ere gertatu. Beste behin, bidean zegoen alantre arantzadun bat ibilgailuko aurreko zein atzeko ardatzean trabatu zitzaigun. Zarata arraro bat entzun eta autoa geratu genuen.



'Livingstone' eta Ordoñez Nani Roma rally pilotu katalanagaz.

Eta eskerrak, ze abiadura hartan aurrera jarraitu izan bagenu, itzulipurdi asko emango genuen.

Desertuaren erdian horrelako istripu bat... Zelakoak dira segurtasun neurriak?

Onak baino hobeak! Hamar bat helikoptero etengabe dabilta airean. Guri, ezerezaren erdian ibilgailua irauli zitzaigunean, 15 minutura mediku bat zelan nengoen galdezka neukan. Sinestezina da. Beste behin, ibilgailua matxuratu egin zitzaigun, konpontzen hasi ginen eta ez ziren 10 minutu pasatu helikoptero bat agertu zenerako. Ondo geundela esan



Oskar Ordoñez eta Ignacio Corcuera Dakar rallya amaitu ondoren, ikurrinari eusten.

MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Aurten, Durangoko Alpino Tabira mendi klubak beste pauso bat emango du gazteen artean mendirako eta, orokorrean, naturarako zaletasuna sustatzeko. 2017tik hona, 12 urtera arteko haurrak dituzten familientzat antolatu dituzte irteerak. Orain, nerabeengana heldu gura dute, 12tik 17 urtera arteko gazteengana, eta eurentzat antolaturiko ekintza sorta prestatu dute. Horrela, aurten behintzat, adin tarte guztiek beren-beregi eurentzat bideraturiko ekintza sorta izango dute Alpinon. Nerabeei bideraturiko egutegiaren aurkezpena otsailaren 17ko eguenean egingo dute, 19:00etan, Alpinoren Durangoko egoitzan.

Beste mendi talde askotan lez, Alpinon ere belaunaldien arteko erreleboa "falta" da; hau da, "ez dago gazterik" eta kezka hori akuilu lez erabili dute Alpinoko kidea den Sergio Aritzederraren esanetan.

Familientzat antolatzen dituzten irteeretan konturatu dira 12 urtetik gorako gazteek, normalean, ez dutela "gurasoekin ibili gura". Beraz, horixe da nerabeen gustuetara egokituriko ekintzen ezaugarri bat: lagun artean eta gurasorik barik egiteko modukoak dira. Baina hori bakarrik ez da nahikoa mendizaletasuna sustatzeko. "Mendirako irteerekin bakarrik ez dugu lortuko", uste du Aritzederrak. Horregaitik, ekintzei "adrenalina apur bat" gehitzen eta "erakargarriago" egiten ahalegindu dira: eskalada saioak, rapela, arroka-jaitsierak, mendiko orientazio saioak... eginez. Ekintzetan aditua

Alpino Tabira mendi taldeak sei irteera antolatu ditu nerabeak mendira eta naturara erakartzeko

Eskalada saioak, rapela, arroila-jaitsierak eta beste hainbat ekintza prestatu dituzte 12tik 17 urtera arteko gazteei begira



Ekainean eta irailean irteera bana antolatu dute arroilak jaisteko.

den enpresa bat kontratatu dute eta eurekin eta Alpinoko kideekin ibiliko dira gazteak. "Kontua ez da gazteak enpresako lagunekin

bidaltzea bakarrik. Ez, Alpinoko kideak ere hor egongo gara irteera guztietan", dio Aritzederrak. Batez ere, Alpinoko bazkideei bideratu-

riko ekintzak izango dira. Horrela, bazkideek "lehentasuna" izango dute taldeak osatzerakoan. Bazkideentzat "oso ekintza merkeak"

izango dira eta, ildo horretatik, herritarrak Alpinoko bazkide egitera deitu dituzte. Bazkide egitea 40 euro da; eta lehenengo urtetik aurrera, 20 euro da urteroko kuota.

Gainera, ekintzak heziketarako erreminta lez ere baliatu gura dituzte, "balioak eta ohitura onak" sustatzeko.

Egitaraua

Sei irteera antolatu dituzte, bat hileko. Martxoaren 19 eta 20rako, Kantabriako Alto Campoo eski estaziora joango dira, neguko erraketekin ibiltzera eta teknika ikastera. Apirilaren 2an eta 3an Urkiolara joango dira, orientaziorako nozioak jasotzera —iparrratza erabiltzera, mapak irakurtzera...— eta larrialdiko aterpe bat zelan egin ikastera, besteak beste.

Maiatzaren 15ean Eginoko (Araba) eskalada eskolan ibiliko dira; eskalatzen eta rapela egiten ikasiko dute. Teknika horiek ekainaren 5eko eta irailaren 11ko irteeretan ere ipini ahalko dituzte praktikan, arroilak jaisten ibiliko dira-eta Araban: Aguaquen eta Lezen, hurrenez hurren.

Azkenik, urriaren 9an Kantabria eta Burgos (Gaztela eta Leon) artean dagoen Lunada mendia igoko dute.

Jokaldia

Badator mendiko denboraldia

Badator mendiko denboraldia eta jada egutegia osaturik daukagu korrikalariok. Bi federaziok eta zenbait markak antolatzen dituzten zirkuitu ugari daudenez, nire asmoa Euskal Herriko lasterketak eta kanpokoak aipatzea izango da.

Txapelketei dagokienez, martxoaren 6an bertan izango da Euskadiko Atletismo Federazioaren (EAF) mendi lasterketen txapelketa, Urretxun.

Euskal Mendi Federazioaren txapelketak hauek izango dira:

- ULTRA: Maiatzaren 14an Domusa Teknik, Azpeitian.
- LINEA: Irailaren 17an Sorginen Lasterketa, Axpen, Atxondon.
- GAZTEEN Txapelketa: Irailaren 27an Gorbeia Suzien, Zeanurin.
- KM BERTIKALA Urrian: Anboto km bertikala, Arrazolan, Atxondon.



Garazi Sampedro Arando

Mendi lasterketak

"Mundu mailako lasterketetan Skyrunner World Series zirkuituko finala Zeanuriko Gorbeia Suzien izango da"

"Salomon markaren Golden Trail Series zirkuituan gertuen geratzen zaigun lasterketa Zegaman izango da"

EMFk argitaratu duen egutegiarekin jarraituz, EMF kopa 5 lasterketak osatzen dute eta horietatik 4 lasterketa amaitu beharko ditugu korrikalariok sailkapenean agertzeko. Martxoaren 19an hasiko da, Bediako Kolazinoko mendi egunarekin (24km/1600m+) eta hurrengoak hauexek dira:

- KILIMON TRAIL MENDARO, apirilaren 2an.
- AMURRIO TRAIL, ekainaren 19an.
- BASTIDA TRAIL, uztailaren 9an.
- URDUÑAKO MENDI LASTERKETA, azaroaren 13an.

Mundu mailako lasterketei dagokienez, Merrell markak antolatzen duen Skyrunner World Series zirkuitua dozena bat lasterketetz osatua dago, kontinente guztietan zehar aurki daitezke larrik. Aipatzekoa, finala Zeanuriko Gorbeia Suzien lasterketa izango dela. Politia izango da munduko lasterkari onenak etxetik gertu ikusi ahal izatea.

Salomon markaren Golden Trail Series zirkuituan gertuen geratzen zaigun lasterketa Zegaman izango da, betiko legez korrikalari onenen erakusleho bikaina.

Zu ere gogotsu zaude denboraldiari ekiteko?



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA: Promozio berria. Udaletxe ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Kalitatezko materialak. **C.E.E=A 230.000-TIK HASITA.**

// AUKERA

ZALDIBAR: Bilbao etorbidea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Eguzkitsua. Hegoaldea. **C.E.E=F 118.000 €**

IURRETA: Dantzari. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E= F. 140.000€ negoziagarria.

DURANGO. 2 logela, (lehen 3), komuna, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. Berriztatua. **C.E.E: E. 145.000 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E=F. 130.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. C.E.E=F. 258.000 €.

ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. C.E.E=F ALOKAIUAN EROSTEKO AUKEAREKIN **600 € / 180.000 €.**

DURANGO. Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. Garajea. **C.E.E= E. 281.600€**

ZALDIBAR: Fueros kalea. 114m2. Altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Aire girotua. 2 kotxerentzako garaje itxia. 42 m2-ko ganbara. Etxebizitzarekin bat egiteko aukera. Txokoa, estudioa. **CEE=F. 252.000 €**

MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Igogailua. **C.E.E=F 149.000 €**

MADALENA: 132 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 325.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €.**

SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Leho berriak. Ganbara. **C.E.E=E 125.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

MATIENA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **CEE=G.120.000 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m2-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**

ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**

ZALDIBAR: 95 m2. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**

BERRIZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua. Berriztatua. **C.E.E=E 130.000 €**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreintzeko. **125.000 €**

IZURTZA: Baserrria. 324 m2-ko eta 134 m2-ko bi etxebizitzatan banatuak. 3 solairutan banatuak. **C.E.E=E 640.000 €**

ABADIÑO: Etxebizitza. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela eta egongela. Terraza. Lokal komertziala eta garajea. Aparkaleku pribatua. Txokoa. 300 m2-ko lorategia. Lanabesentzako txabola. **415.000€**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Alluitz kalea. 3 logela, 2 komun eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara eta garaje itxia.

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintzeko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIUAN

BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



IURRETA 70 m² 3 logela
BIDEBARRIETA: Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Etxe erdiak kanpora ematen du (hegoaldea). Leku onean kokatua. Erdialdetik gertu. ITE-a 2018.urtean pasatutakoa.
159.000 € C.E.E: E negoziagarria



MATIENA 58 m² 3 logela
TRANAETXOSTE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (Ekialdea) Erdialdean kokatua. Aparkatzeko erraza. 4 m²-ko ganbara. ITE oraintsu pasatua. Bizitzera sartzeko moduan.
124.000 € C.E.E: E



DURANGO 83 m² 3 logela
ANDRA MARI: Atikoa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 komun. Igogailua. Altua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hegoaldea). Herri erdian kokatua. Ezin hobea (10 urteko antzinatasuna). Zoru berokuntza.
265.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 65,90 m² 2 logela
FRAI JUAN DE ZUMARRAGA: Egongela, sukaldea, despentsa (komuna egiteko aukeragaz), 2 logela eta komuna. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Ikuspegiak. (Iparralde) Leku onean kokatua. Egoera onean.
168.000 € C.E.E: E



DURANGO 85 m² 3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.
249.000 € C.E.E: Bidean



BERRIZ 58 m² 2 logela
LEARRETA MARKINA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-iparralde). Argitsua. Ikuspegiak. ITE oraintsu pasatuta. Garaje itxia +20.000 €.
125.000 € C.E.E:E

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Bulegoa. **220.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **112.000 € / E.E.Z= E**

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 € / E.E.Z=E**

GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € / E.E.Z.= G**

KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

ABADIÑO

ALFREDO BAESCHLIN: Etxebizitza eraikitzeke lursaila. **180.000 €.**

BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeke baserrria lurzorugaz. **290.000 €**

IURRETA

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

OTXANDIO

GONBILAZ AUZOA: Baserrria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**

ZALDIBAR

MIREN MAORTUA: 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**

ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

GARAJEAK SALGAI

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€
(Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

BARIKUA, 11 · 09:00-09:00	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 14 · 09:00-09:00
09:00-22:00	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 12 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 15 · 09:00-09:00
09:00-13:30	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	09:00-22:00
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	EGUAZTENA, 16 · 09:00-09:00
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 17 · 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO
09:00-22:00	MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 13 · 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 **DURANGO**
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia



Zorionak, **Intza!** Otsailaren 10ean 12 urte egin zenituen. Muxu potolo eta besarkada erraldoi bat gure etxe-ko neska handiari. Maite zaitugu!



Zorionak, **Ines!** Ondo pasa zure eguna. Muxu bat denon partez.



Zorionak, **Iara!** Askio maite zaitugu. Musu handi bat Jurgiren, aitaren eta amaren partez.



Zorionak, **Ur!** Muxu eta besarkada potoloak Gasteizko aitite-amamen, osaben eta birramama Natiren partez!



Zorionak, **Ari!** Otsailaren 16an 5 urte. Musu potolo bat guztien partez!



Eguenien 4 urte egin dozuz. Zorionak, **Seber!** Askio maitte zaittugu. Mosu haundi bat familia guztixen partez!



Zorionak, bikote. Segi horren alai. Besarkada eta mosu potolo bana zuen aititte-amamen eta aitittaren partez.

Eguraldia

ZAPATUA ⬇️ 16° / 2° ☁️

DOMEKA ⬇️ 16° / 4° ☁️

ASTELEHENA ⬇️ 11° / 6° ☁️

MARTITZENA ⬇️ 12° / 6° ☁️

EGUAZTENA ⬇️ 14° / 5° ☁️

EGUENA ⬇️ 17° / 7° ☁️

lorena martinez ornoz

Sortzailea eta ilustratzailea

emozioa ilustratzen 2

otsailak 19 **Masterclass** Tailerra

16 urtetik aurrera
Lehenengo edizioa egindakoek lehentasuna izango dute.

Ordutegia: 9:30 - 13:30



Aldiz aurretiko izen ematea:
946812726 - bibliotekakoekintzak@iurreta.eus / Bidebarrieta, 4 - 48215 (IURRETA (Bizkaia))

WhatsApp: 688 86 37 36



“Pozik joango nintzateke Nepalera trekking zeharkaldiak egitera”

Marilu Egiartek Afrikako gailurrik altuena, Kilimanjaro, zapaldu zuen joan zen urrian, 68 urte gaz. Aurretik, jubilatuta eta denbora gutxira, Machu Pichu mendia ere igo zuen



Marilu Egiarte Arribalzaga

Kilimanjaro igo du
ZORNOTZA | 1953

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Marilu Egiartek bizpahiru orduko ibilaldiak egiten ditu egunero, Nur txakurragaz. Belatxiketa, Bizkargi, Gorbeia, Anboto, Mugarra... ondo ezagutzen ditu, eta iaz Afrikako gailurrean izan zen, Kilimanjaron. Mendizalea ez ezik pilotazalea eta futbolzalea ere bada.

Gutxik esan dezakete Kilimanjaro igo dutela, are gutxiago 68 urte gaz. Zelan animatu zinen?

Bai, eta oso pozik nago. Murtziako lagun on batek proposatu zidan, Pacok, eta, birritan pentsatu barik, baietz esan nion. Paco Pirinioetan ezagutu nuen orain urte batzuk, eta Machu Pichu (Peru) ere igo

genuen biok, 2017an. Oso ondo konpontzen gara mendiko bizikidetzara horretan. Osasuntsu nago, bizipoza dut eta gauzak egiteko gogoia.

Kilimanjaron halako askatze sentsazio bat sentitu nuen. Oso txiki sentitu nintzen halako handitasuna ikusita

Zelan prestatu zinen?

Asko ibili naiz hemengo mendietan, eta Kilimanjarora joan aurreko bezperako egunetan Veleta (3.396

m) eta Mulhacen (3.479 m) igo genituen, altuerara aklimatatzeko.

Zer sentitzen da Afrikako gailurrean?

Ezin da azaldu hango argitasuna, koloreak. Halako askatze sentsazio bat sentitu nuen. Aurrean nuen handitasuna ikusita oso txiki sentitu nintzen. Ahalegin handia eskatzen du, gainera. Gailurrean neu izango nintzen edadetuen. Mendi-gidariak 'mami leona' esaten zidan, pozarren. Gu 10 lagunekoa taldeagaz joan ginen: gidaria, sukaldaria, zamaketariak... azken horiek bai meritua!

Machu Pichu 64 urte gaz joan zinen.

Neure buruari egin nion omenaldia izan zen. Hainbeste urte

lanean emanda, jubilatuta ondoren, zeozer berezia egitea nuen gogoan. Hilabete egin genuen han, eta Vinicunca mendia (5.200 m) ere igo genuen, zazpi koloredun mendia. Machu Pichuraino igotakoan, negar batean hasi nintzen. Machu Pichu eta Kilimanjaro igotzea oso esperientzia aberasgarriak izan dira, momentu gogorak egon diren arren. Gauza asko dago ikusteko eta ikasteko munduan.

Jubilatzean, beste etapa batean sartzen gara eta gauza mordoa egin genezake. Horretara animatu gura ditut emakume guztiak

Gertukoek baino ez dute jakin Kilimanjaro igo duzula.

Bai. Herrian asko harritu egin dira jakin dutenean. Ondo sentitzen naiz, erronka bat izan delako. Baina ez dut sentitzen halako balentriarik egin dudarik. Emakumeentzat eredu izan nintekeela da gehien baloratzen dudana. Jubilatzean etapa berri batean sartzen gara eta gauza mordoa egin genezake, emakumeok ere bai. Horretara animatu gura ditut denak. Ondo bagadude eta gai bagara, inork ere ezin digu esan zer egin dezakegun eta zer ez.

Kilimanjarora zindoazela zekitenek ez zizuten esan ea zoraturata zauden?

Bai. 'Ez dira, ba, gertuago ere egongo lekuak!' eta halakoak entzun ditut. Baina nik hara joan gura nuen.

Zer ematen dizu mendiak?

Bakea, poztasuna. Gainera, bidea bera da gehien gustatzen zaidana. Asko disfrutatzen dut. Eta mendian ezagutu duzun hori betirako laguna izango duzula uste dut. Adinean aurrera eginda sortu zitzaizkidan batez ere mendizaleasunerako grina.

Zein izango da hurrengoa, Everest?

Ez, ez. Baina pozik joango nintzake Nepalera trekking zeharkaldiak egitera.

Zein duzu mendirik kutunena?

Bizkargi asko maite dut. Gurasoak hangoak ziren eta Bizkargiren magalean jaiotakoa naiz. Nire bizitzan presentzia handia izan du.

Lauhortza

Markel Sanchez Zelaia
Behargina



Zu izan ezik

Puntisten bilobak, trenean etorritakoenak, San Faustoetan al-kandora zuri eta pañeluz doazenak, Ezkurdiko eskaleak, hurrik ere ematen ez dutenak, pinudien ugazabak, irakasleak, zapatarriak, beren alkoholismoari poteo deitzen diotenak, txakurren jabeak, petardoaren kontrakoak, txakurren jabe diren petardoak, loteroak, zorte txarrekoak, autoa epetan ordaintzen ari direnak, Ampueroarren maizterrak, pasioan dabiltzanak, pasioa ez dutenak, Magdalenan egoten den jubilatua, heteroak, ume negartiarak, udal taldekoak, oposizioak, oposizioak egin barik udalean daudenak, gau-paseroak, crossfiteroak, batetik bestera gau batez pasa zirenak, etorri berriak, inoiz joaten ez direnak, harri-pausuetan haziak, plateru zaharrak, martxantera berriak, berbaldauak, isilak, ozpinak, Durango Opinako ez-tabaidari finak, Instagrameko izarrak, eskala irakurleak, zapatuetan Open Shopen Monsterrak edaten dituzten nerabeak, itsuak, herrenak, dantzako kontuengatik elkar agurtzen ez dutenak, ardo beltzen zaleak Goienkalean, kamareroak beltzean, beltzak terrazak batzen bata bestearen atzean, gaztaina-saltzailea, txurreroa, patinete elektrikoan doan trapitxeroa, pragmatikoak, iraultzaileenak, pragmatikoena iraultza egitea dela uste dutenak, iurretarrak, balkoian Athleticeko bandera dutenak, Abadiñora doazenak futboleko jokatzera, garbategian lehorgailuari begira daudenak zain, online erosten dutenak, Sorginola bota gura dutenak, sokamutur zaleak, animalistak, Pio-Pio kanpoan autoa edonon uzten dutenak, arte gutxiko artistak, karlistak, domeketako ziklistak.

Denok gaude hemen. Denok, zu izan ezik.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com